



# kritiken hemeroteka

7.882 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

## Azken kritikak

- **Epizentroa**  
Nerea Loiola Pikaza  
*Ainhoa Aldazabal Gallastegui*
- **Izurdeen aurreko bizitza**  
Kirmen Uribe  
*Asier Urkiza*
- **Luminiszentek**  
Igone Mariezkurrena Fernandez / Irantzu Pastor Ordoki  
*Nagore Fernandez*
- **Gu gabe ere**  
Itziar Ugarte Irizar  
*Jon Martin-Etxebeste*
- **Begiak zabalduko zaizkizue**  
Irati Jimenez  
*Anjel Lertxundi*
- **Totelak**  
Fermin Etxegoien  
*Anjel Lertxundi*
- **Infinitua ihi batean**  
Irene Vallejo  
*Anjel Lertxundi*
- **Borrokalarri transgeneroak**  
Leslie Feinberg  
*Irati Majuelo*
- **Totelak**  
Fermin Etxegoien  
*Ibon Egaña*
- **Motx-motxean**  
Juan Cruz Igerabide  
*Karla Fernández de Bengoa Vázquez*
- **Ihes baten lausoa**  
Hasier Larretxea  
*Jose Luis Padron*
- **Mamu eratoritzeko moduak**  
Juanjo Olasagarre  
*Asier Urkiza*
- **Udaberria sutan**  
Joxemari Iturralde  
*Nagore Fernandez*
- **Ez dakit zertaz ari zaren**  
Ana Malagon  
*Paloma Rodríguez-Miñambres*

[« Iraganeko hariez etorkizuna josten |](#)

## Epizentroa / Nerea Loiola Pikaza / Erein, 2021

Lurrikarek eraginda → Ainhoa Aldazabal Gallastegui / *Argia*, 2021-12-12

*Epizentroa* zazpi kontakizunetz osatutako liburua da. Nerea Loiola Pikazak helduentzako egin duen lehenengo lana da eta izenburu sugerentea aukeratu du estreinako lana argitaratzeko: *Epizentroa*.

Definizioz, lurrikarak edo mugimendu sismikoak gehien nabaritzen diren lurzoru zatia da epizentroa eta liburuaren irakurketan etengabe pentsatu dut aproposa dela benetan epizentroarekin eskaintzen zaigun irudia. Izan ere, kontakizun guztietan lurrikara bat gertatzen da, zeinak pertsonaien ordura arteko bizitza eta egoera erabat aldatuko dituen. Esango nuke gai orokorra bera dela guztietan: gertakizunek eta erabakiek pertsonaien bizitzetan duten inpaktuaren adibideak dira denak. Inpaktuek bizitza “normala” kolokan nola jartzen duten erakusten digute, pertsonaien konplexutasun eta hipokresia agerian utziz.

Kontakizun guztiek elkarbanatzen dituzten elementu gehiago daude liburuan. Esaterako, aurkezten diren egoerek gauza txikiekin dute zerikusia, egunerokoan pertsonaiek dituzten pentsamendu, sentimendu eta esatekoekin. Sexuak eta desirak kontakizunen arteko hari gisa funtzionatzen dute. Hau da, pertsonaia gehienek gaiaren inguruko zalantzak, gezurrak, beldurrak eta plazerak erakusten dituzte. Botere harremanen preso dira eta sexua beraien bizitza den performancea erakusteko elementua. Pertsonaia batzuek, modu mesfidatian bada ere, terapia alternatiboak erabiltzen dituzte beraien gaitz eta zailtasunak gainditzeko. Literatura garaikidearen eta gaur egungo panoramaren erakusle direla esango nuke.

Istorio bakoitzak ezaugarri bereizgarriak ere baditu eta pertsonaia bakoitzaren epizentroa desberdina da. *Itsaso zuria*-n, amaren gaixotasunak eta etor daitekeen heriotzak eragiten du haurraren lurrikara. *Epizentroa* deitzen den kontakizunean lan aldaketa batek eragiten du pertsonaien bizitzetan mugimendu sismikoa eta agerian uzten du bikote harremanean dagoen paternalismoa.

Ipuin tradizioaletako egitura lineala jarraitzen dute kontakizunek. Hasierako egoera bat dago eta gero lurrikarak apurtzen du. Ipuin tradizioaletatik desberdina dutena zera da: istorioek bukaera argitu gabe uzten dute, irekiak dira. Irakurleak ipuinok osatu beharrean aurkituko du bere burua.

Patxadaz irakurtzeko liburua da —kontakizun bat gaur eta bestea hurrengo egunean, adibidez—, istorioek duten pisua eta mamia gozatu eta ulertu ahal izateko. Loiolaren hurrengo liburuen zain geratuko naiz ni, beste zerbaiz irakurtzen dudana bitartean.

## Artxiboa

- Abendua 2021
- Azaroa 2021
- Urria 2021
- Iraila 2021
- Abuztua 2021
- Uztaila 2021
- Ekaina 2021
- Maiatza 2021
- Apirila 2021
- Martxoak 2021
- Otsaila 2021
- Urtarrila 2021

Aurreko urteak ▾

## Hedabideak

- Berria (1117)
- Argia (1015)
- El Diario Vasco (954)
- El Correo (813)
- Gara (643)
- Egunkaria (505)
- Deia (473)
- Aizu! (185)
- El País (151)
- Irunero (122)
- Zeruko Argia (97)
- Egin (77)
- Hegats (62)
- Besterik (1667)